

ZIOEN AZALPENA

Araudi honen xedea Aretxabaletako sistema politikoaren demokratizazioan sakontzeko marko legala zehaztea da. Arau horren barruan eta udal sistema demokratizatzeko bide gisa, alde batetik, herritarren parte hartzea arautu eta sustatzeko neurriak hartzen dira; bestetik, udal egituraren gardentasunerako neurriak zehazten dira, aretxabaletar orok duen informaziorako eskubidea bermatu asmoz.

Udal gobernu demokratikoak interes orokorraren aldeko erabakiak hartzea bilatzen du. Norabide hori markatzen du araudi honek, herritarren beharrak asetzearekin batera.

Interes orokorra lortzeko ezinbestekoa da udal egiturak eta herritarrek bidea elkarrekin egitea. Are gehiago, interes orokorra bilatzen dela bermatzeko, herritarren parte hartzea funtsezkoa da udal egituretan.

Horretarako, egungo sistema politikoak sortzen duen distantzia leuntzeko neurriak hartzen dira ordenantza honetan. Izan ere, kontuan izan behar da udala dela herritarrak gertuen duen administrazio publikoa, eta gertutasun hori ahalbidetzeko ahaleginak erakusten ditu ordenantza honek.

Udal kudeaketaren esparru desberdinetan herritarren inplikazioa sustatuko duen parte hartze eredua sustatu nahi du araudi honek. Funtsezkoa da udal administrazioak herritarren behar, gogo eta nahiak ezagutzea kudeaketa garden eta bateratua garatzeko, baita herritarren behar sozialak asetzeko ere.

Araudi batek ez du berez parte hartzea sustatuko, pertsonon inplikazio eta mobilizazioa ezin delako arau bidez garatu. Halere, araudi honen bitartez herritarren parte hartzea sustatuko duten neurri batzuk hartuko dira eta herritarrek udal kudeaketan parte hartzeko dituzten eskubideak aitortu eta babestu.

Udalaren konpromisoa, beraz, demokrazian sakontzen lagunduko duen parte-hartze sistema sortzea da. Konpromiso honen isla da araudi hau sortzeko 2016ko ekaina eta 2017ko otsaila bitartean garatu den partaidetzazko prozesua. Araudi honen oinarria herritarrek modu irekian egindako ekarpenak eta erdietsitako adostasunak dira. Era berean, araudi honetan hartutako berme eta neurriak garatzeko bitartekoak jarriko dira eta herritarren eskumena izango da araudi honek jasotzen dituen oinarrien ikuskatze eta jarraipen lana egitea.

I.TITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua XEDEA

Araudi honen xedea herritarren partaidetza sustatu eta garatzea da, udal administrazioaren funtzionamendu gardena bermatuta.

Zehazki xede hauek betearaztea bilatzen dugu araudi honekin:

- a) Herritarrak ahaldundu, udal politika eta kudeaketan parte har dezaten neurriak sustatu eta parte hartzeko dituzten eskubideak bermatu.
- b) Herritarrek udal administrazioaren inguruko informazioa eskuragarri izatea ahalbidetu, udal administrazioaren funtzionamendu eta kudeaketa gardena bermatuta.

2. artikulua APLIKAZIO ESPARRUA

1. Araudi honen aplikazio esparru objektiboa Aretxabaletako herria da.
2. Aplikazio esparru subjektiboa Aretxabaletako biztanleen udal-errolan sartutako pertsonena da, edozein izanik ere haien naziotasuna, sexua ala erlijioa, bai eta herritarren elkarteak ere, parte-hartze eskubide batzuk erabili ahal izateko berariaz eska dakizkiekeen betebeharren kalterik gabe.

3. artikulua HELBURUAK

Araudiak honako helburuak ditu:

- Gizon eta emakume atxabaltarrak udal kudeaketa publikoan era orekatuan inplika daitezen bultzatzea, eremu publikoa interesatzen zaien herritar aktiboak izatearren.
- Udal gobernuaren jardueraren gardentasuna areagotzea eta gobernu jardueraren eta Aretxabaletako gizartearen arteko lotura egituratzea.
- Udal administrazioak herritarrei eskaintzen dien arreta hobetzea, udal administrazioaren eta herritarren arteko harremana eta komunikazioa hobetze aldera.
- Atxabaltarrek udal administrazioaren funtzionamenduan parte hartzeko dituzten eskubideak bermatzea.
- Aretxabaletako elkartearen ehuna sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea.

II. TITULUA

ARETXABALETAKO HERRITARRAK

4. artikulua ARETXABALETAKO HERRITARRAK

- 1.- Aretxabaletako herritar dira biztanleen udal errolda osatzen duten pertsona guztiak, edozein herritartasun izanik ere.
- 2.- Era berean, 16 urte baino gutxiagoko atxabaltar haur eta nerabeak aintzat hartuak izango dira, ezinbestekoa baita partaidetza kultura hedatzeko haur eta nerabeen parte hartzea sustatu eta udal dinamikak haur eta nerabeekin garatzea.

III. TITULUA

HERRITARREN ETA TALDE ETA ELKARTEEN PARTAIDETZA ESKUBIDEAK

5. artikulua Parte hartzeko eskubidea

1. Herritar guztiek dute herriko gai publikoen kudeaketan esku hartzeko eskubidea, zuzenean edo herriko elkarte bidez, parte hartzeko organoak eta bitartekoak erabiliz horretarako, indarrean den legerian eta Araudi honetan zehaztutako bide eta moduak erabilita.
2. Araudi honekin bat, Udalaren jarduerarekin lotutako gaietan interes legitimoa duen edozein herritarrek erabil ditzake parte hartzeko eskubideak.

6. artikulua Entzuna izateko eskubidea

1. Prozeduren tramitazioetan edo udal jarduketak egiten direnean, entzunak izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baldin eta bidezko interesa baldin badute prozedura eta jarduketa horietan.
2. Herritarrek eskubidea dute alkateak edo bere orde zuzendatutako zinegotziak har ditzan, beti ere hitzordua eskatzeko prestatutako prozeduran ezarritako ordutegian, eskaera egiten denetik 15 lan eguneko gehieneko epean. Bidezko arrazoiren bat bada tarteko, 10 lan egunez luzatu ahal izango da epea.
3. Halaber, herritar eta herritarren elkarte orok du prozeduren izapidetzean edo interes legitimoren bat duen udal jardueren burutzean entzuna izateko eskubidea.
4. Alkateak, urtean behin gutxienez, udal arduradunen eta herritarren arteko herri bilera ireki baterako deia egingo du.
5. Alkatearekin edo bere orde zuzendatutako zinegotziarekin hitzordua izateko, ahal den neurrian, alde aurretik egin beharko da eskaera, antolaketa egokia bermatu ahal izateko. Hitzordua eskakizunak mezu elektronikoko edo telefono bidez edo eskaera orria beteta bideratu ahal dira. Hitzorduaren arrazoia edota gaia azaldu beharko da.
6. Udalerriko biztanleek edonori zabalduzako bilera publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, udal eskumeneko gaien inguruko informazioa jaso eta iritzia emateko.

7. artikulua Ekimenerako eskubidea

- 1.- Herri ekimenak aukera ematen dio edozein pertsonari udal ekintzak edo jarduerak sustatzeko, hala nola:
 - a) Bere eskuduntzako esparruetan proiektuak edo erregelamenduak onartzea proposatzeko eskubidea;
 - b) Udalbatzaren gai-ordenan gaiak sar daitezela proposatzeko eskubidea;
 - c) Udal interes publikoko jarduerara zehatz bat egin dezala udalari eskatzeko eskubidea, Udala eta eskatzailearen arteko kolaborazio/kooperazio esparrua definituta.
- 2.- Udal hauteskundeetan bozketa aktiborako eskubidea duten herritarrek erabili ahal izango dute herri-ekimena eta izango dute eskubidea Udalaren eskumeneko gaietan erabaki edo jarduerara proposamenak edota erregelamendu proiektuak aurkezteko. Ekimen horiek gutxienez Aretxabaletan erroldatutako herritarren %10ek izenpetu beharko ditu. Edonola ere, aurrez Udal idazkariaren legezkoatasun-txostena beharko da; baita Kontu-hartzailearen txostena ere, baldin eta ekimen horrek Udalaren diruzko eskubide eta betebeharrei eragiten badie. Ekimen horiek ezingo dira proposatu, inolaz ere, indarrean den legerian debekatuak dauden gaien inguruan.

8. artikulua Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

1. Herritar guztiek dute udal gobernuari eskaerak egiteko edota udal jardueri buruzko azalpenak eskatzeko eskubidea. Eskubide hori gauzatzeko bide desberdinak erabiliko dira, betiere eskatzailearen nortasunaren eta eskaeraren helburua egiaztatzen bada.
2. Herritar guztiek eta herriko elkarte guztiek dute udal jardueraren eta herriko zerbitzu publikoen gaineko kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.
Kexak, iradokizunak edo proposamenak Udal Erregistroan aurkez daitezke. Udalak jarritako bitarteko elektronikoak edo telematikoak ere erabili ahal izango dira horretarako. Elkarte edo talde moduan egindako eskariek eskatzaileen nortasuna egiaztatzeko aukera eman beharko dute.
3. Iradokizunak, kexak eta eskaerak honako moduetan bete eta aurkeztu ahalko dira: Udalaren arreta zerbitzuan edota Udalaren web orrian (www.aretxabaleta.eus).
4. Hilabeteko epean, Erregistroan behin sarrera eman eta hurrengo egunetik hasita, erantzuna eman eta jakinarazi beharko dira eskaera guztiak.

9. artikulua Artxibo eta erregistroetan sartzeko eskubidea

1. Herritar guztiek eskubidea dute udalaren ekimen eta erabakien kopia edota ziurtagiriak eskuratzeko, baita udal artxibo eta erregistroak kontsultatzeko ere, legeak ezartzen dituen mugen baitan.
2. Udal administrazioaren eskubide honen ukoa arrazoitutako ebazpen bidez justifikatuta egongo da.
3. Eskaerak hilabeteko epean erabakiak eta jakinaraziak izango dira.

10. artikulua Udal egituretan parte-hartzeko eskubidea

1. Udal batzordeak

1. Udal Batzorde Informatzaileak pertsona fisiko eta juridikoentzako irekiak izango dira baldintza konkretuetan.
2. Herritarrek modu iraunkorrean batzorde batean izen emateko aukera izango dute, udaletxean eskuragarri egongo den eskaera-orria beteta, indarrean dagoen legedia baimentzen duen kasuetan. Batzordeak erabaki dezake momentu jakin batean norbait gonbidatzea.
3. Deialdiak 2 egun lehenago egingo dira eta herriko tabloietan eta Aretxabaletako Udalaren webgunean zabalduko dira deialdiak eta saioaren gai-ordena.
4. Batzordekideek (udaleko zinegotziak) jaso duten informazio berdina eskatu ahal izango dute bertaratutako herritarrek, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko Legea urratzen ez den bitartean. Horretarako, Batzorde guztietan dokumentazioaren ale gehigarri bat izango da eskuragarri, bertaratu den herritarrak eskura dezan.
5. Edozein erabaki bozkatu aurretik, beharrezkoa balitz, Batzordeko Lehendakariak Batzordera hurbildu diren herritarrei bozkatuko den gaiaren inguruan duten galdera, iritzi edo kezak adierazteko aukera emango die.
6. Batzordea amaitutakoan, Batzordeko Lehendakariak galdera eta eskeen txanda bat irekiko du bertaratutako jendearentzat, batzordeko udal intereseko gai zehatzen gainekoa. Batzordeko Lehendakariari dagokio txanda hori gidatzea eta ixtea.
7. Batzordeko aktak udalaren webgunean argitaratuko dira. Batzorde horretan izen eman duten herritar edota elkarteei ere bidaliko zaizkie aktak. Herritarren Datu Pertsonalak dituzten akten kasuan informazioa disoziatuko da eta ez da publiko egingo datu pertsonalen Babeserako Legeak babesten duen informazioa.

2. Osoko bilkurak

Herritar guztiek dute Osoko Bilkurretan parte hartzeko eskubidea:

1. Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan izena eman duten elkarte eta talde zein herritarrek Osoko Bilkuraren gai zerrendako punturen baten inguruko herri ekimena gauzatzeko, proposamenak aurkezteko eta ahoz parte hartzeko eskubidea dute.
Eskubide hori erabili ahal izango dute gai zerrendako puntu hori beren jarduera esparrukoa delako interesatzen zaiela justifikatzen duten elkarte edota herritarrek.
2. Osoko Bilkurako gai zerrendan puntu bat sartzeko edota mozio bat aurkezteko puntu horrekiko interesa edota beharra justifikatzen duen eskaera aurkeztuko da deialdia egin baino astebete aurretik.
3. Osoko Bilkuratan galde-eskeen txandan parte hartzeko eskubidea izango dute herriko elkarte eta talde edota herritarrek.
4. Eskatzaileak 10 minutu izango ditu interbentzioa egiteko. Amaitutakoan, alkateak edo zinegotziak erantzuteko aukera izango du. Ondoren, eskatzaileak erantzuteko txanda izango du; eta alkatearen interbentzioarekin amaituko da txanda.

11. artikulua Informaziorako eskubidea

1. Pertsona guztiek, hala fisikoek zein juridikoek ere, bakarka edo taldean, udal jarduera eta zerbitzuen informazio zabala izateko eskubidea dute, baita indarrean den legedian araututakoaren arabera udal-agiritegi publikoetara sartzeko aukera izateko eta Udalak ezarritako informazio orokorreko bitarteko guztiak erabiltzeko ere.
2. Udalak eskubide hori erabiltzeko aukera emango du eta informazio orokorreko bideak sortuko ditu herritarrek egin ditzaketen informazio eskaerei erantzuteko; eskaerak egiteko muga bakarra legea izango da, bereziki haurrak eta gazteak babesteko eskubideak, pertsonen intimitaterako eskubideak edo herri-segurtasunari buruzko eskubideak.
3. Interes publikoko gaiak direnean, erabakiak herritar guztiei azalduko zaizkie eta, beharrezkoa den kasuetan, aldizkari ofizialean argitaratuko dira. Aipatutako erabakiak eta xedapenak leku publikoetan eta udalaren webgunean argitaratuta ere ezagutaraziko dira.
4. Aretxabaletako Udalak helbide elektronikoaren zerrenda bat sortuko du, hala eskatzen duten herritarrei atal honetan adierazitako informazioa igortzeko. Herritarrek posta elektronikoaren zerrenda horretan egoteko eskaera egiteko eskubidea izango dute, Osoko Bilkuraren eta batzordeen zein gobernu batzordearen aktak, udalaren bandoak, eta herritarren partaidetzazko prozesuei buruzko dokumentazioa jasotzeko.
Herritarren Datu pertsonalak dituzten akten kasuan informazioa disoziatuko da, eta ez dira publiko egingo Datu Pertsonalen Babeserako legeak babesten duen informazioa. Posta elektronikoaren zerrenda horren erabilera Datu Pertsonalen Babeserako legea betez egingo da eta herritarrek eskatutako informazioa helarazteko soilik erabiliko da.
5. Beste edozein informazio idatziz eskatu beharko da. Eskaeran, eskatzailearen datuak (izena, abizenak, nortasun agiri edo pasaportearen zenbakia, jakinarazpenetarako helbidea eta modua), bere izenean edo norbaiten ordezkartzan egiten duen eta zer nolako informazioa kontsultatu nahi duen adieraziko du. Eskaera kolektiboa baldin bada, eskatzailearen datuak emateaz gain, kolektiboa osatzen duten eskatzaile guztiek eskaera sinatu beharko dute eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen-abizenak adierazi beharko dira.

IV TITULUA

PARTE HARTZEKO MODUAK

12. artikulua Partaidetzazko prozesuak

1. Araudi honen arabera, partaidetzazko prozesuak honako aldiak betetzen dituztenak izango dira:

a) Informazio aldia: eztabaidatuko den gai edo proiektuari buruzko informazioa eskainiko da, egoki diren teknika metodologikoen bitartez. Informazio hau bereziki gaian interesa duten herritar orori helaraziko zaio.

b) Eztabaida aldia: egoki diren teknika metodologikoak erabilia, herritarren diagnostikoa, eztabaida eta proposamenak sustatuko dira.

c) Itzultze aldia: horren bitartez, parte hartzen dutenei eta herritar orori jakinaraziko zaie parte hartzeko prozesuaren emaitza.

f) Ebaluazio aldia: herritarrek erabakitakoa eta benetan burututakoa zenbateraino bat datozen ebaluatuko dute.

2. Prozesuen izaerari dagokionez, landuko den gaiaren arabera erabakiko da, prozesua kontsultiboa edo erabakitzailea izango den eta horrela jakinaraziko zaie partaideei.

3. Haur eta nerabeei eragiten dieten gaietan, beraiekin diseinatuko dira prozesuak egokitutako metodologiaren bitartez, Aretxabaletako haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko helburuarekin.

13. artikulua Herri galdeketak

1. Alkateak, osoko bilkurak gehiago osatuz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzi handia daukaten gaien buruzko iritzia galde diezaioke herritarrei, baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta udalaren ingurukoak badira.

Galdeketako galdegaiekin ezingo zaio bide eman oinarrizko giza-eskubideen urraketari, ezta tokiko ogasunari buruzko gaiei.

2. Erroldatutako biztanleen % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dute ekimena. Hori eginez gero, horretarako Udalak propio prestatua duen eskaera agiria bete eta sarrera eman beharko zaio, udalak tramitea emateko prozedura irekiko du eta prozedura zehaztuko du.

3. Adinez nagusia izan eta Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dagoen herritar orok du eskubidea bere interesekoak diren gaien inguruko kontsulta jasotzeko eta herri galdeketa edo erreferenduma sustatzeko.

Salbuespen gisa eta galdeketa-prozesuaren gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzerriarrek eta bozketa egunean gutxienez 16 urte duten adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte. Horrelakoetan, boto-emateen errolda biztanleen udal-erroldarekin osatuko da, eta udaleko idazkaritzaren ardura izango da egokitzapen hori egitea.

4. Herritar bakoitzak boto bakar bat eman ahal izango du herri galdeketa eta ez da onartuko inork beste inoren ordezkartzan botoa ematerik.

5. Alkateak egingo ditu mota horretako herri-galdeketaarako deialdiak, osoko bilkurak hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin. Osoko bilkuraren erabakian honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gai den xedapen, politika edo erabakia publikoaren testu osoa, galdeketa-gai diren itaunak eta galdeketa noiz egin behar den. Galdeketa-deialdia aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo 90 egun eta urtebete artean egin beharko da.

6. Behin sarrera emanda, 15 eguneko epean, bilera deituko du alkateak, galdeketa nola egingo den adosteko.

7. Herri galdeketa burutzeko prozedurak honako izapide eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- a. Herri galdeketaarako deialdia Udalaren iragarki taulan, prentsan eta aldizkari ofizialean argitaratzea.
- b. Hautesleen errolda jendaurrean jartzea, gutxienez, astebetetz.
- c. Botoa posta bidez emateko aukera ahalbidetuz gero, posta bidezko boto-ematearen prozedura arautzea.
- d. Hautesleen erroldaren inguruan egindako erreklamazioak ebaztea.

- e. Hauteskundeetarako kolegioen kokalekua onartzea.
- f. Herri galdeketaren inguruko propaganda biltzeko eta ekitaldiak burutzeko lekuen zerrenda onartzea.
- g. Hauteskunde mahaietako kideak aukeratu.
- h. Galdeketaren inguruko proposamen eta aukerak ezagutarazteko jarduerak egiteko epea ezartzea; gutxienez, 10 egunekoa izango da.
- i. Bozketa.
- j. Hautesleek bozketaren egunean egindako erreklamazioak.
- k. Behin-behineko zenbaketa. Zenbaketaren aurkako erreklamazioak.
- l. Behin betiko zenbaketa eta kontsultaren emaitzak argitaratzea.

14. artikulua Osoko bilkurak

1. Osoko bilkuretan herritarren parte hartzea sustatuko da, 10.2.kapituluan zehazten diren neurri eta prozeduren bitartez.
2. Era berean, Osoko Bilkuretako gai-zerrenda burutu baino gutxienez 2 egun lehenago publiko egingo dira udalaren tabloi eta webgunearen bitartez, eta udal informazioa jasotzeko interesa agertu eta emailak jasotzeko zerrenda izen eman duten herritarrei bidalita.
3. Bilkurak grabatuak izango dira eta webgunean zein ahalbidetzen duten komunikabide lokaletan hauen zuzeneko zein aurrez grabatutako emanaldiak eskainiko dira.

15. artikulua Udal batzordeak

Batzorde informatiboetan herritarrek zein herriko talde edo elkarteek parte hartzeko eskubidea dute, arloko zinegotzi eta arloko udal teknikariarekin batera, 10.1 kapituluan zehazten den moduan.

16. artikulua Parte hartzea sustatzeko batzordea

1. Udal parte hartze dinamika estrategikoa antolatzekeo ardura izango duen batzorde anitza osatuko da, arloko zinegotziak, arloko udal teknikaria eta herritarrek osatuko dutena.
2. Talde honen funtzioak hauek izango dira:
 - a) Udaleko gai estrategikoak eta agenda publikoan daudenak detektatu, eta lehenetsunaren arabera metodologia parte hartzaile desberdinak garatuz udal prozesu eta ekimen parte hartzaileak proposatu eta sustatzea.
 - b) Parte hartze araudi honen betearazpenaren jarraipena egitea.
3. Gai-zerrenda publikoa izango da batzordea burutu baino 2 egun lehenago.
4. Udal teknikariak izango du bileren akta hartzearen ardura.
5. Aktak publikoak egingo dira udal webgunean, eta hala eskatzen duten herritar eta elkarteek helaraziko zaie.

17. artikulua Aurrekontu parte hartzaileak

1. Udal aurrekontuak urtero izan beharreko lehenetsune buruz proposamenak, gogoeta eta eztabaida egiteko prozesuak egitea bultzatuko da aurrekontu parte-hartzailearen metodologiaren bitartez.
2. Aurrekontu Parte-hartzailea sendotzea bermatzeko, eskumena duen udal organoak eredu orokor bat eta oinarrizko metodologia-arau batzuk zehaztu eta onetsiko ditu, modu gradual eta pedagogiko batean herritarrek aurrekontuaren inbertsioen atal batzuk lehenetsi eta erabaki dezaten.

3. Urtero herritarrekin aurrekontua prestatzeko batzarrak antolatuko ditu udalak. Batzar hauetan udalak herriko egoera eta udal aurrekontuaren berri emango du eta herritarren ekarpen eta lehentasunak jasoko ditu. Urtetik urtera dinamika honetan sakontzeko urratsak garatuko ditu udalak.

V TITULUA

HERRITARREN ELKARTE ETA TALDEEN PARTE HARTZEA

18. artikulua Udal batzordeetan parte hartzeko eskubidea

10.1. kapituluan adierazi den moduan herriko talde eta elkarteek bere helburu sozialarekin lotura duten batzordeetan parte hartzeko eskubidea izango dute dagokion prozedura jarraituta.

19. artikulua Osoko bilkuretan parte hartzeko eskubidea

10.2. kapituluan adierazi den moduan herriko talde eta elkarteek Osoko Bilkuretan parte hartzeko eskubidea izango dute dagokion prozedura jarraituta.

20. artikulua Biltzeko eskubidea

1. Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako herritarren elkarte eta talde orok du udal lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, biltzeko eskubidea baliatzeko.

21. artikulua Udal webgunean tarte bat izateko eskubidea

1. Udalak, bere webgunean, tarte bat gordeko die Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan izena emanda dauden erakundeei.
2. Tarte horretan eskaintzen diren edukiak elkarteak erabakiko ditu; betiere, bere ardurapean, baina indarrean dagoen legediaren aurkako neurririk planteatu gabe.
3. Elkarteek herriko ekimenen agenda bateratua osatzeko eskubidea izango dute.

VI TITULUA

UDALAREN ARRETA ZERBITZUA

22. artikulua Udalaren arreta zerbitzua

1. Arreta zerbitzuaren eginkizunak hauek dira:
a) Eskakerak erregistratu, eta, dagokion kasuan bideratu.
b) Kexak, proposamenak eta iradokizunak jasotzea eta beharrezko dituzten izapide administratiboak egitea.
c) Herritarrak proposamenak eta iradokizunak egiten laguntzea, hala eskatzen duten herritarrekin eskaera-orriak betetzen lagunduta.
2. Herritarren eskaera eta kontsultak telefonoz, aurrez aurre edo email edo udalaren webgunearen bitartez erantzun dira.
3. Herritarrei erantzun azkar eta eraginkorra emateko neurriak hartuko dira. 3. Herritarrak sarrera-eskaera burutu eta hilabetera erantzun bat bidaliko die udalak, eskaera horren lehenengo erantzunarekin.
4. Eskaera bideratzea dagokion kasuetan, hala egingo da eta dagokion sailera bideratuko da, zinegotzi edota teknikari arduradunari bidaliz eskaera.
5. Herritarren arretarako zerbitzua udaletxean goizez eta arratsaldez bermatuko da.

VII TITULUA

GARDENTASUN PUBLIKOA

23. artikulua Gardentasun publikoa

1. Udalak herritarrei modu gardenenen eskuragarri jarriko die sortzen duen jarduera nagusien inguruko informazioa.

2. Udal webgunean gai honen inguruko informazioa eskuragarri egongo da:

- Hartzen diren erabakiak
- Udal zerbitzuak
- Udalak dituen baliabide materialak herritarren erabilerarako
- Udalak eskaintzen dituen dirulaguntzak
- Herriko ekintzen deialdiak
- Udaleko lan taldeak
- Udal batzorde eta plenoetako aktak eta bilera burutu baino behintzat 2 egun lehenago gai-zerrenda publikatuko du

3. Udaleko webguneaz gain, udal eraikin publikoetan eta tabloietan eskaniko dira udalaren deialdi eta hitzorduak.

24. artikulua Udalaren finantza egoera

1. Herritar guztiek dute udal aurrekontuaren tramitazioa eta exekuzioaren egoera ezagutzeko eskubidea.

2. Kontuhartzailearen aurrekontuaren likidazio txostena webgunean argitaratuko da Ogasun Batzordetik pasa ostean.

3. Kontuhartzailearen aurrekontuaren exekuzio egoeraren txostenak publikatuko ditu udalak webgunean.

25. artikulua Udalaren kontu ematea herritarrei

1. Udalak aurrekontuaren egoeraren inguruko bilera irekia deituko du herritarrei aurrekontuaren berri emateko, eta aurrekontuan garatzekoak diren edota garatu diren proiektuen egoeraren inguruan kontu emateko.

2. Bilera ireki hauek, era berean, herritarren lehentasunak eta proposamenak jasotzeko diseinatuak izango dira.

VIII TITULUA

INFORMAZIOA

26. artikulua Abian diren prozedurei buruzko informazioa

1. Herritarrek eta herriko talde edo elkarteek interesak dituzten eta abian diren prozeduren egoeraren berri izateko eskubidea dute.

2. Prozedura hauetan sortzen den dokumentazioaren kopiak jasotzeko aukera izango dute herritarrek. Jarduerak garatzeko beharrezkoak diren irizpideen informazioa jaso eta aholkatuak izateko eskubidea bermatuta izango dute, era berean, herritarrek.

27. artikulua Bilkurak eta erabakiak argitara ematea

1. Aretxabaletako Udalak bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu udal jardunaren inguruko informazioa herritarrei helarazteko.
2. Udal jardunaren inguruko informazioa baloraziorik gabekoa izatea saiaturiko da.

28. artikulua Webgunea

1. Aretxabaletako Udalak herritarren eskura jarriko du webgunea. Bertan agertuko dira interes orokorra duten jarduerak, osoko bilkuretako eta gobernu organoetako akordioak (datuak disoziatuta), herriko jardueren agenda...
2. Udalaren webgunean tarte bat egongo da ideiak, iritziak, iradokizunak, errekonozimenduak... azaltzeko, Udalaren edo herriaren intereseko gaien inguruan foroak sortzeko. Horretaz aparte, 20. artikulua dioen bezala, elkarte edo taldeek tarte propioa izateko eskubidea izango dute webgunean.
3. Udalaren webgunean udal mailako gaien inguruko galdeketak edo inkestak sustatuko dira. Udala galdetegi hauen gaiak planteatzeko aukera izango. Herritarrek eta elkarrekin ere webguneko galdetegi edo inkestetarako gaiak planteatzeko aukera izango dute. Honetarako, erroldatuen %3aren sinadurak aurkeztu beharko ditu, galdetegi hau sustatzeko eskaera-orriarekin batera.

29. artikulua Herri mailako komunikazioa

1. Herritarrentzako intereseko proiektu eta jarduerak, jendaurreko informazio epeak eta jardueren agenda jakinaraziko ditu Udalak, argitalpen idatzi, internet eta sare sozialen bidez.
2. Udal eraikinetan udaleko informazioa argitaratzeko espazioak gaituko dira, eta herrian zehar informazio tabloietan informazioa eskainiko du udalak.
3. Aretxabaletako Udalak herritarrei udal informazioa zein euskarritan jaso nahi duten erabakitzeko aukera eskainiko die (digitalean edo paperean). Informazio hau hiru edo lauhilabetero helaraziko da. Honetarako, propioki herritar guztiei komunikatuko zaizkie aukerak, eta bakoitzak nahi duenaren araberrako eskaera-orria beteko du.